



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA AUTOGOBERNU
SAILA
Enplegu Publikoko sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE
GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN
DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Empleo Público

070/2025 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO
SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN
ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LAN-KATEGORIETAKO
LAN-POLTSAK SORTZEN DITUENA ETA LANGILEAK
INTEGRATZEN DITUENA MEKANIKARI ETA MANTENTZE-
LANETAKO ARDURADUN LANPOSTUETAN.

RESOLUCIÓN 070/2025, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO
PÚBLICO, DE CREACIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO DE LAS
CATEGORÍAS LABORALES DE LOS PUESTOS DE
MECANICO/MECANICA Y RESPONSABLE DE
MANTENIMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y SUS
ORGANISMOS AUTÓNOMOS E INTEGRACIÓN DE PERSONAL.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duenak, lan-poltsak eratzeko irizpideak ezartzen ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko irizpideak ere.

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, fija los criterios de constitución de bolsas, así como los que deben regir en la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Agindu horren 1. artikuluan ezartzen denez, EAEko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langileen hautaketari aplikatuko zaio, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

Dicha orden, en su artículo 1 establece que se aplicará a la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios en la Administración General de la CAPV y sus Organismos Autónomos, que reúnan los siguientes requisitos:

a) Bitarteko funtzionarioen izendapenaren bidez egitea, funtzio publikoari buruzko legeriaren arabera, edo, lan-legeriaren arabera iraupen mugatuko lan-kontratuen bidez egitea.

a) Que se realicen en virtud de nombramiento de personal funcionario interino, conforme a la legislación de función pública o mediante contratos laborales de duración determinada conforme a la legislación laboral.

b) Lan-baldintzak araututa egotea funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan edo lan-kontratudunen kolektiboen hitzarmenean, biak baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten langileenak.

b) Que las condiciones de trabajo estén reguladas por el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario o en el Convenio de Colectivos Laborales, ambos del personal al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Lan-poltsak eratzeari dagokionez, aginduaren 3. artikulua ezartzen du EAEko Administrazio Orokorreko kidego, aukera edo eskalen eta lan-kategorien arabera eratuko direla lan-poltsak, eta lan-eskaintza publikoak eratzeko prozesua direla.

Respecto a la constitución de las bolsas de trabajo, el artículo 3 establece, que se constituirán de acuerdo con los cuerpos, opciones o escalas y categorías laborales de la Administración General de la CAPV y que las ofertas de empleo público son un proceso para su constitución.

Beharrezkoa eta premiazkoa denez lanpostu jakin batzuk aldi baterako betetzea, Mekanikari eta Mantentze-lanetako arduradun, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean lanpostu horiek betetzeko lan-poltsarik eta langilerik ez duenez, EAEko Administrazio Orokorreko lanpostu horien lan-kategoriei dagozkien lan-poltsak sortu

Siendo necesaria y urgente la provisión temporal de determinados puestos de Mecánico/Mecánica y Responsable de mantenimiento, y no disponiendo la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco de bolsas de trabajo ni de personal para su cobertura, se debe de proceder a la creación de las bolsas



behar dira, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta langileak integratu behar dira, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2024ko ekainaren 19ko Ebazpenaren arabera (ebazpen horren bidez, enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetako Administrazio Orokorreko lan-poltsak handitzeko irizpideak ezartzen dira).

Langile horiek lanerako “prest ez” dauden egoeran sartuko dira, eta beren borondatez aldatu ahal izango dute, indarrean dagoen araudiaren arabera, integrazio-egunean bertan lanerako prest dauden egoerara.

Lan-poltsak osatzen dituzten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen eta haren erakunde autonomoen lan-poltsak kide direla, zer arautegik arautzen dituzten eta lan-eskaintzak jasotzen hasteko zer izapide egin behar dituzten.

Lan-kontratuko lanpostuen kategoria bakoitzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuak amaitzean, dagozkion lan-poltsak berrantolatuko dira, Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren ebazpen bidez zehazten diren irizpideen arabera, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera, zerrenda hori argitaratzen da Administrazioak bere informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan, lan-poltsen eta haien konfigurazio eguneratuari buruzko informazioa eskuragarri egon dadin.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3.4 artikulua emandako eskumenaren arabera, honako hau:

EBAZTEN DUT

Lehenengo artikulua.- Lan-poltsa hauek eratzea eta langileak sartzea, ebazpen honen eranskinean ezarritakoaren arabera:

- Mekanikaria
- Mantentze-lanetako arduraduna

correspondientes a las categorías laborales de dichos puestos de la Administración General de la CAPV, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 3.1 de las Orden de 7 de enero de 2021, y a la integración del personal, conforme a los criterios de la Resolución de 19 de junio de 2024 del Viceconsejero de Función Pública, por la que se establecen los criterios de ampliación de las bolsas de trabajo de Administración General de los procesos selectivos excepcionales de consolidación de empleo.

Este personal se integrará en situación de “no disponible”, y podrán cambiar voluntariamente, de acuerdo con la normativa vigente, su situación a disponible el mismo día de su integración.

El personal que integre las bolsas recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la Administración General de la Comunidad y sus Organismos Autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo.

A la finalización de los procesos selectivos excepcionales de cada categoría de los puestos laborales, se procederá a la reordenación de las bolsas de trabajo correspondientes, que se llevará a cabo conforme a los criterios que se determinen mediante Resolución de la Viceconsejería de Empleo Público, previa negociación con la representación del personal.

De acuerdo con lo dispuesto en la referida Orden de 7 de enero de 2021, se procede a publicar el listado resultante en los medios telemáticos habitualmente utilizados por la Administración para la difusión de su información, de forma que la información sobre las bolsas de trabajo y su configuración actualizada esté disponible.

En virtud de la competencia atribuida por el 3.4 artículo de la citada Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno,

RESUELVO

Artículo primero. - La constitución de las siguientes bolsas de trabajo y la integración de personal, en los términos establecidos en el Anexo a la presente Resolución:

- Mecánico/Mecánica
- Responsable de mantenimiento

Bigarren artikulua. - Zerrendan Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeko zutabeen edo lan-poltsan sartzeko eskatzen den titulazio-zutabeen izartxoak (*) duten pertsonen baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, horretarako balio duen jatorrizko dokumentua aurkeztua.

Artículo segundo. - Las personas que en el listado por orden o en el listado alfabético aparezcan con un asterisco (*) en la columna de acreditación del Perfil Lingüístico o en la columna de titulación requerida para el acceso a la bolsa, deberán acreditar el cumplimiento de dichos requisitos mediante la presentación de documento original válido para ello.

Horretarako, ebazpen honen bidez, zerrendan adierazitako izartxoarekin agertzen diren pertsonen eskatzen zaie akatsa zuzentzeko, eta jatorrizko dokumentazioa modu presentzialean aurkezteko Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba), 2025eko ekainaren 27a baino lehen. Horretarako, Administrazioak posta elektronikoz edo SMS bidez deituko die.

A este fin, a través de la presente, se les requiere a las personas que aparecen en los distintos listados con el asterisco indicado para que subsanen la falta aportando la documentación original de manera presencial en la sede central del Gobierno Vasco, sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Álava, antes del día 27 de junio de 2025. Para ello, la Administración les citará mediante correo electrónico o SMS.

Adierazitako errekerimenduari erantzuten ez diotenak, eta lan-poltsan sartzeko beharrezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenak lan-poltsatik kanpo geratuko dira, Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduraren 14. artikuluko f) eta j) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera.

Quienes no atiendan el requerimiento indicado y no acrediten el cumplimiento de los requisitos necesarios para formar parte de la bolsa serán excluidos de la misma, conforme a lo dispuesto en el artículo 14, apartados f) y j), de la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

AZKEN XEDAPENAK

DISPOSICIONES FINALES

Lehenengoa. - Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren webguneko www.euskadi.eus/lanpoltsak helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Primera. - Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en la dirección www.euskadi.eus/lanpoltsak de la página web del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Bigarrena. - Ebazpen honek ondorioak izango ditu Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren webguneko www.euskadi.eus/lanpoltsak helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Segunda. - La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en la dirección www.euskadi.eus/lanpoltsak de la página web del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

ERANSKINA

ANEXO

1. Ebazpen honen lehengo artikuluan adierazitako lankategorietan sartzeko enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuaren azken kalifikazioen behin betiko zerrendako hizkuntza-eskakizunik gabeko zerrendan dauden langileak lanpostu-kategoria horri dagokion lan-poltsan sartuko dira.

2. Langile horiek 0 puntuazioarekin integratzen dira, eta merezimenduak baloratzeko hurrenkeran, hizkuntzaeskakizunik gabeko lanpostuetarako.

3. Berdinketa gertatuz gero, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena). Hala, berdinketa emakumeen alde ebatziko da deialdiari dagokion kidegoan, eskalan, mailan edo lan-kategorian emakumeen % 40 baino gutxiago dagoenean, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen – nolahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik –; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Hizkuntza eskakizuna izango da, hizkuntza eskakizun handienetik txikienera ordenatuta. Berdinketak bere horretan badirau, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko irailaren 29ko Ebazpenean argitaratutako letra izango da berdinketa hausteko hurrengo irizpidea. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2024-2025 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, bai eta ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ere. Zozketaren emaitza "P" letra da. Irizpide hori alfabeto-hurrenkeran aplikatuko da, lehenik eta behin abizenarekin, bigarren abizenarekin berdinketak jarraitzen badu, eta, azkenik, izenarekin.

4. Jardunean dauden langile integratuek "lanerako prest ez" egoera izango dute, harik eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, hautagaiaren atariaren bidez, beren borondatez aldatzen duten arte.

5. Enplegu Publikoko sailburuordearen ebazpena argitaratzen den egunean sartuko da lan-poltsan, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

6. Lan-poltsak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez arautuko dira. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da (2021eko urtarrilaren 25ean argitaratua).

1. El personal que forme parte del listado sin perfil lingüístico de la relación definitiva de calificaciones finales del proceso excepcional de consolidación de empleo de acceso a las categorías laborales indicadas en el artículo primero de la presente resolución, será integrado en la bolsa de trabajo correspondiente a dicha categoría de puesto laboral.

2. Este personal se integra con puntuación 0, y en el orden de valoración de méritos para los puestos sin perfil lingüístico.

3. En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 21.1 a) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en el cuerpo, escala, nivel o categoría de puesto laboral correspondiente a la convocatoria, salvo que concurren en la otra persona candidata motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo. Como siguiente criterio de desempate se usará el perfil lingüístico, ordenado de mayor a menor perfil. De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en la *Resolución de 29 de septiembre de 2023, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2024-2025, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar*. El resultado del sorteo es la letra "P". Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre.

4. El personal integrado que esté en activo tendrá la situación de "no disponible" hasta que voluntariamente la modifique, de conformidad con la normativa vigente, a través del Portal del candidato.

5. La integración en las bolsas de trabajo de realizará el día de la publicación de la Resolución de la Viceconsejera de Empleo Público, surtiendo efecto desde el día siguiente de su publicación.

6. Las bolsas de trabajo se regularán por la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, publicada el 25 de enero de 2021.



7. Lan-poltsen kudeaketako datu pertsonalen tratamendua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Tratamendu Jardueren Erregistroan egingo da, «Hautaketa-prozesuak» izenekoan. Enplegu Publikoaren Zuzendaritza izango da organo arduraduna, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubideak ere, Enplegu Publikoaren Zuzendaritzaren aurrean.

Informazio gehigarria:

<https://www.euskadi.eus/web01-aprat/es/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281>

8. Publizitatea. Lan-poltsak eta kideen zerrenda helbide elektroniko hauetan argitaratuko dira, eta iragarki-aula gisa balioko dute, informazioa eman eta kontsultak egin ahal izateko.

www.euskadi.eus/lanpoltsak
www.ivap.euskadi.eus

7. El tratamiento de datos personales de la gestión de las bolsas se realizará en el Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, denominado "Procesos selectivos", siendo el órgano responsable la Dirección de Empleo Público y pudiendo ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y supresión de datos, así como de limitación u oposición a su tratamiento ante la Dirección de Empleo Público.

Información adicional:

<https://www.euskadi.eus/web01-aprat/es/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281?locale=es>

8. Publicidad. Las bolsas de trabajo y la relación de personas integrantes se publicarán en las siguientes direcciones electrónicas, las cuales servirán de tablón de anuncios a efectos de información y consulta.

www.euskadi.eus/bolsastrabajo
www.ivap.euskadi.es